

KUTXABANK TALDEA

Finantzaketa-zorroa deskarbonizatzekeo tarteko helburuak

Abendua 2022



Kutxabank Taldeak erabateko konpromisoa hartua du jarduten duen inguruneko deskarbonizazioari laguntzeko eta bultzada emateko, eta, horregatik, neurriak aplikatzeko erabaki irmoa hartu du, bai jarduera korporatiboan, bai bezeroekiko harremanetan, eragile funtsezkoa izan nahi baitu **isuri gutxiko eta hazkunde jasangarrian oinarritutako ekonomia bateranzko trantsizio-prozesuan**.

Bere jarduerari dagokionez, erakundeak % 85 baino gehiago murriztu du **Aztarna Korporatiboa** azken urteotan; horren arrazoi nagusia da energia % 100 berriztagarritz hornitzeko kontratua sinatu duela konpainia elektriko batekin, eta, gainera, aztarna hori konpentsatzeko lan egiten du, basoen kudeaketaren bitartez.

Finantzatutako isuriei dagokienez, 2019ko abenduan, **COP25 akordioa** sinatu zuen erakundeak eta, beraz, bere jarduera klima-aldaketari aurre egiteko Parisko Akordioaren helburuekin lerrokatzeko konpromisoa hartu zuen.

Zehaztutako jardueren artean, **sektore osorako deskarbonizazio-helburuak ezartzeko eta argitaratzeko konpromisoa hartu zuen erakundeak, zorroa lerrokatzeko agertokietan oinarrituta**.

Testuinguru horretan, Kutxabank Taldeko Gobernu Organoek 2022ko abenduan onartu dute tarteko deskarbonizazio-**helburuak ezartzea** hipoteka-maileguetan, petrolioaren eta gasaren alorrean eta energiakoan finantzatutako zorroei ezarriko zaizkie, % 10, % 30 eta % 30eko murrizketekin, hurrenez hurren, eta momentuz, finantzaketa-jarduera bakarrik kontuan hartuta:

ALORRA / ZORROA	ERREFERENTZIAZKO EGOERA	ISURPENEN IRISMENA	METRIKA	OINARRIKO URTEA 2021	2030RAKO HELBURUA	MURRIZKETA % (2021-2030)
Hipoteka zorroa	NZE 2050 (IEA) eta CRREM 1.5°C	1+2	kg CO2/m2	22,717	20,445	% -10
Energia	NZE 2050 (IEA) 1.5°C	1+2	kgCO2parek/MWH	193	135	% -30
Oil & Gas	NZE 2050 (IEA) 1.5°C	1+2+3	Mn tCO2parek	4,0	2,8	% -30

* Finkatutako deskarbonizazio-helburuak sektoreko erakundeek gehien erabiltzen dituzten nazioarteko organismo eta erakundeen metodologietan eta datu-baseetan oinarritzen dira

** Horretaz gain, murrizketa-ehunekoak finkatzeko, aztertutako sektore bakoitzean erakundearen kontrako alderdi nagusiek markatutako deskarbonizazio-helburu propioak hartzen dira kontuan

**** Helburu horiek alde zuzenetik ezartzen dira, une horretan eskuragarri dagoen informazioaren arabera, eta aldatu egin daitezke datu gehiago eta merkatuari buruzko informazio gehiago lortzen den heinean. Era berean, erakundearen kontrako alderdi nagusien deskarbonizazio-helburuen funtsezko aldaketa bat gertatzen bada, baliteke erakundeak ezarritako helburuak berrikusi behar izatea*

Aurretiako lehen hurbilketa bat da hori, berrikusi beharrekoa, eta zorroa lerrokatzeko metodologiak aztertzen eta ezagutzen hasteko aukera ematen dio erakundeari. Era berean, alde batetik, **Parisko Akordioaren helburuak betetzeko** erreferentziazkoak diren eta Energiaren Nazioarteko Agentzietatik (IEA, ingelesezko siglen arabera) ateratako pathway-etan oinarrituta **lerrokatzea zorroak** eta, bestetik, **aztertutako sektore bakoitzean erakundeak dituen kontrako alderdi nagusien murrizketa-helburuak** konbinatzen ditu. Ildo horretan, **bere kontrako alderdi nagusiek markatutako** tarteko **deskarbonizazio-helburuei** buruzko informazioa erabili du finantzatutako zorroari buruzko helburuen definizioan, eta horien bilakaeraren aldizkako jarraipena egingo du.

Finantza Taldeak **bere kontrako alderdi nagusiekin hainbat jarduketa implementatuko ditu finkatutako deskarbonizazio-helburuak betetzea sustatzeko**. Gainera, helburuak alor eta zorro gehiagotara zabalduko ditu datozen ekitaldietan.

Azkenik, erakundearen konpromisoaren barruan, honako alderdi hauek nabarmentzen dira:

- Taldeak bere **jarduera korporatiboaren aztarnaren inpaktua murrizten jarraitzeko konpromiso irmoa du**.
- **Enpresei karbono gutxiko ekonomia baterantz bideratzen laguntzea** da erakundearen asmoa eta, horretarako, bezeroek bide horretan dituzten beharrak finantzatzen ditu.
- 2022ko abenduan bere **Sektorekako Politika onartu du, ingurumenari eta gizarteari begira kaltegarriak diren jarduerak identifikatzeko aukera ematen diona** eta deskarbonizazio-helburu hauen definizioa osatzen duena.
- Kutxabankek sektore eta zorro **berriak** txertatuko ditu, pixkanaka, **tarteko deskarbonizazio-helburuetan, datozen ekitaldietan**.

- **ESG rating agentzia baten ebaluazioa** egin du Kutxabankek, arlo horretan egindako aurrerapenei gardentasuna ematearren.